




Zuhaitz Gurrutxaga, maitasuna banatzen



Maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergorako Eskaintza 2016-2017

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Artezkoa



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar



NORA HADI

“Ez gaude senide gehiago galtzeko prest”

Irudikatu bizitza. Irudikatu orain soka bat. Bizitza soka bat izan daiteke, adibidez, goitik beherako soka bat. Irudikatu zama astun bat sokaren behealdean. Eta orain, imagina zaitez zu, Garazi, soka horren goialdean, tinko, eroso. Imagina nazazu behean, indargabetuta.

Hauts gorri bihurtu da gure hatsa, edo hobeto esanda, horretara kondentatu gaituzue. Bere horretan hatsari hautsa dario eta horrela lasai lo egiterik ere ez daukagu.

Behinola, etxea eta familia utzi genituen, sekula itzuliko ez ginela jakinda. Egoera gogorra. Egoera latza. Inork aukeratuko ez lukeena, eta inori ere opa ez dioguna. Hala eta guztiz ere, gure ondasun apurrekin alde egin eta laguntza eskatzen dihardugu.

Ez dugu gertatutakoa aldatzea eskatu nahi. Hankak lurrean ditugu eta badakigu ezinezkoa dela. Baina hankak lurrean ditugulako, badakigu datorrena pixka bat hobea eta eramangarriagoa bilakatu dezakegula. Eta ez ditugu senide gehiago galdu nahi. Ez gaude senide gehiago galtzeko prest.

Horregatik jo dut zugana, Garazi, egia esan, desesperatuta. Nitaz akordatu ere ez zara egingo. Kazetari lanetan etorri zinen Siriara orain dela urte batzuk, bonbardaketa baten erdian gure etxean errefuxiatu zinen, beldurak akabatuta.

Eta orain, paperak aldatuta daudela dirudien honetan, jakin nahi nuke, gure egoeraz zerbait dakien horren barruan, ea zerbait mugitu den, ea zerbait egiten ari zaren.

Agian ekibokatu egin nintzen, edo ginen. Agian gure sorlekuan itxaron behar genion heriotzari. Agian ezberdintasuna ez zen horren handia izango. Agian horixe da gure patua.

Baina hausnarketa horretatik urruntzen naizenean, pentsatu nahi dut badagoela jende ona munduan, harriz harri hesiak botatzen lagunduko digun jendea, oztopoak oztopo gugana iritsiko den jendea.

Lau haizetara, Garazi, lau haizetara galdetu nahi diot munduari, beste bide bat posible al da?

Soka mozten ari da.



GARAZI AYESTA

“Argi geratu dadila hemen oso arduratuta gaudela zuekin”

Nora, aspaldiko! Zer moduz? Kezkatuta nengoen zurekin, aspaldian ez duzula Facebooka eguneratu! Hain gogorra da egoera? Bai, egia esan he-dabideak egunero ari zaizkigu zuen irudiak botatzen, eta ezin penagarriagoak dira han ikusten ditugun dramak. Jo, ze fuertea. Imaginatzen dut nekatuta egongo zaretela jada, ezta? Baina tira, lasai hartu, Nora. Hemen asko akordatzen gara zuekin. Pila-pila bat. Egunean Teleberriko bideoak irauten duen minutu eta erdi, gutxienez. Hasperen egiten dugu, eta noizean behin guk zer egin dezakegun pentsatzen jartzen gara... baina kirolen tartea iristen den orduko, gure burua Rea-laren partidari dago jada, (Illarrak jokatuko ei du gaur!) baina twitterren mundua erotuta dagoela eta [#refugeeswelcome](#) nahi dugula txiokatuz, lehenbizi. Argi geratu dadila hemen oso arduratuta gaudela zuekin. Argi geratu dadila edozer egiteko prest gaudela humanitatez eta solidaritatez jokatzeko, [change.org](#)-n zuei pasatzen uzteko eskatzen duen dokumentua

sinatzea ere bai, noski. Argi geratu dadila presioa egin nahi diegula agintariei eta erakutsi hau ez dela guk nahi duguna. Aurrekoan telebistako programa batera deitu nuen hori esateko, gainera.

Bestela, ea zer egin dudari galdetzen didazu. Ba gauza pila bat, esan dizudan moduan. Ezin dut nire bizitza goitik behera aldatu eta hara laguntzera joan, edo egun guztian zurekin akordatu, Gradu Bukaerako Proiektuarekin buru-belarri nabil, neska! Lanean ere topera nago eta ez daukat solidaritateko asti gehiegirik, ulertzen duzu, ezta?

Baina zurekin arduratuta nago eh, Nora. *Hombre baietz*. Eta benetan uste dut gure indarra gehiago izango dela banatzen gaituen soka baino.

Jo, ze polita geratu zaidan azken hori ez? Twitterren jartzera noa, ea zenbatek bertxiotzen didaten!

Em... baina, zuen kausari oihartzuna emateko eh. Horretarako bakarrik. Benga Nora, zaindu!

ANE ASTIAZARAN

Itzulpengintza ikaslea



Jatorriak

dako hartu-eman; beharrezkoa baita inguruak ezagutzeaz gain inguruko gastronomian murgiltzea.

Ibilaldi luze baten osteko afarian geundela aterazen betiko gaia, euskaldun eta katalanena, hain zuzen ere. Erdi txantxetan, erdi serio esan nien berriek ere ia euskaldunak zirela, ea bestela nondik zetorren Pirinioetako beste bailara haren izena, Val d'Aran, ezta? Aran seguru euskarazko "haran"-etik datorrela, seguru. Hara non, jasotako erantzuna ez ziren txistuak izan (ez

gutziz behintzat). Badirudi, Joan Obiols izeneko historialariak, Pirinioetako herri txikiak aditzera emate aldera, proiektu bat jarri zuen martxan, eta herri txikiz herri txiki ibili zen herritarren etxeak bisitatu, haien janaria dastatu eta bertako istorioen berri izateko asmoz. Hori guztia bildu eta liburu bat baino gehiago argitaratu omen du, herriari buruzko xehetasunak ere plazaratuz, tartean haien izenaren jatorria. Harrigarria izan zen hainbat eta hainbat izenek euskal jatorria zutela jakitea. Adrall, esate baterako, "adar"-etik omen dator, edota Artedó sortu zen lekua izugarritzko artadia omen zen, Montan de Tost izeneko herriak ere, "mendi handi"-n du jatorria, mendi handiaren gaina hartzen baitu.

Ez nuen izan herri txiki horiek ikusteko aukerarik, baina gogoz geratu nintzen, anekdotagatik bazen ere. Badakit, hortaz, zer bisitatu hara ingurutzan naizen hurrengoan.

Badago nolabaiteko joera oporrak iristen direnean Herrialde Katalanak bisitatzera joateko, behin eta berriz bada ere. Azken oporraldia aprobetxatu dut neuk ere horretarako, baina oraingoan hiri handira joan beharrean Pirinio alderantz jo nuen. Seu d'Urgell ardatz hartuta bailara hartako txoko ezkuak aurkitzeari ekin nion, katalan koadrila bat gidari. Ederra izan zen mendi haiek, paisaiak, ibilbideak eta herritxoak ezagutzea, baina are ederragoa hango jendearekin izan-

"Harrigarria izan zen Pirinioetako hainbat eta hainbat izenek euskal jatorria zutela jakitea"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Informatika

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar
EUSKARAZKO IZARRA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 72 URTE, ETA ORAINDIK KARTZELAN

Badira bost urte pasa ETAk borroka armatua utzi zuenetik. Gertaera horrek ziklo baten itxiera ekarri badu ere, oraindik bada hainbat errealitate eta gertaera ziklo hori guztiz itxi gabe dagoela frogatzen dutenak. Euskal preso eta iheslari politikoez ari gara. Oraindik ere euskal presoak sakabanatuak daude espainiar zein frantziar espetxeetan, beraien familietatik milaka kilometrotara askoren kasuan. Gaixo larri dauden hamabi preso espetxeetan mantentzen dituzte, bitzita arriskuan jarritz egunero. Legeek jasotzen dituzten atalak ez dira betetzen euskal presoekin. Hor dugu gure herrikidea den

Sebas Etxaniz. 72 urte ditu. Legediaren hainbat ataletan adin horretako presoak kalean egon behar dutela aipatzen bada ere, Sebas Villabonako espetxean dago kartzelaturik. 14 urte egingo ditu espetxean jarraian Sebasek. Hiru urte egin zituen lehenago ere.

Ziklo berri baten beharra aipatzen genuen lehenago. Baina ziklo berri horretan sartzeko egoera hauek konpondu egin behar dira. Munduko gatazka politiko askotan, bertan izandako preso, iheslari eta deportatuen arazoa konpondua izan da, eta etxeratuak izan dira azkenean.

Euskal Herrian herritar gehiengo handi bat honen alde dago. Agertoki berri bat nahi du, aniztasun eta bizikidetzan oina-

rituta. Sufrimendu eta sentsibilitate ezberdinen egiek euren tokia izango duten agertokia. Estatuak beste bide batean ari dira mugitzen. Gorrotoa, mendekua eta, batez ere, itxikeria politikoa murgilduta daude. Gizarteari dagokigu gure ahotsa altxatu eta adieraztea. Horregatik, eskatzen dizuegu maiatzaren 20an, arratsaldetik 19:00etan, Kalegoen Plazan (Plaza Handian) atera nahi dugun argazkian parte hartu dezazuen.

Gureta askok Sebas ezagutu dugu eta haren adina daukagu. Argazki honekin irudikatu nahi dugu gure adineko bat dela espetxean dagoena, eta, lehenbailehen, etxean nahi dugula.

Pello Mendizabal



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta berrak estaldura
Zaluzko ezarres
Lakaduraz eguz. aluminio, P.V.C.
Pinturaz okeraz

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modurak
Tel. 943 746 570



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651



federópticos
Ikus



audiocentro
Ikus



Honako sintoma hauetakoren bat baduzu?

- Buruko mina
- Ikusmen-nekea
- Begietako azkura
- Begi-keinuak
- Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi begien azterketa eginez, antzeman dezakegu edozein ikusmen-disfuntzio, eta tratamendua eman diezazukegu.

Jose Artetxe, 10
Tel. 943 15 75 74 - AZPEITIA

Zigordia kalea, 7
Tel.: 943 133 151 - ZARAIZTZA

San Bartolome kalea, 10
Tel.: 943 743 734 - ELGOIBAR




Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Lekuederreko txakur kaka: "Lekuederren lorategi berria txukun-txukun jarri duten arren, jendeak inolako errespetik gabe jokutzen duela nabarmena da. Han nintzela txakur batek kaka mokordo handi bat egin zuen eta jabeak ikusi bazuen ere ez zuen jaso. Jendeak batzeko esan zionean ere, entzungor egin eta jaso gabe alde egin zuen. Txakurrak izateak haiek zaintzea dakarrela esan nahi nieke txakur jabeek, nahiz eta jakin jabe guztiak ez direla horrelakoak". Udalak dio jabeak isunen bat jartzekotan unean bertan ikusi behar dutela. Udaltzainek ikusi ezean ezin dute espedienterik jarri, baina herritarrek ikusiz gero salaketa aurkeztu bai. Udaltzainburuak jakinarazi du txakurrek behar ez den tokietan kaka egi-tegatik jartzen diren isunak 30 eta 300 euro artekoak direla; aske eramategatik, berriz, 300 eta 1500 euro artekoak.



San Roken autoak gaizki aparkatuta: "San Roke kaleko bizilagun bat naiz. Gure kaleko 14 eta 16 portalen artean, Kiroldegi parean, sarri askotan autoak egoten dira zebra-bidearen gainean aparkatuta. Horrek oinezkoen pasabidea oztopatzen du eta are gehiago adinekoena, gurgildun aukian ibiltzen direnena edo ume-karroekin joaten direnena. Beraz, autoa han uzten duten gidariei esan nahi diet errespeta izan dezatela. Autoa pixka bat urrunago utzi eta ez dela ezertxo ere gertatzen tarte bat oinez egitearren".



Baserrietarako bideak garbi: "Sallobente-Ermuaran auzoko baserri batean bizi naiz eta bide bazterretatik sasiak eta belarrak kendu dituztenak eskertu nahi nituzke. Autoan gora eta behera ibiltzeko erosoago gelditu zaigu orain bidea hobeto ikusten delako. Sastrakak egonez gero ilunetan handik ibiltzeak errespeta ematen du batzuetan. Eskertzeaz gain, eskatuko nuke hainbatean behin hori egiteko arduraren hartzea baserri-tarren hobe-beharrez".



Parkeetan araudirik ez? "Bi ume txikiren ama naiz eta herriko parkeetan jolasean ibiltzen naizenean beldurrez egoten naiz. Izan ere, adinez pixka bat nagusiagoak diren ume batzuk parkeetan moto txikiekin sartzeko traba eginez eta noizbait ikusi izan ditut moto handiagoekin txirristadatik jaisten ere. Baloiarekin ibiltzen direnek ere txikiei jotzeko arriskua sortzen dute eta sarri gurasoek ez diete arretarik jartzen. Galdetu nahi nuke ea sekula pentsatu ote den parkeetan araudiak jartzerik adina, parke barruan zer erabili daitekeen... zehaztuz". Udalak esan du adina zehaztuta dagoela, baina gainontzean ez dagoela araudi edo baldintzarik, beraz, denak kontuz ibiltzea dela irtenbide bakarra.

29 BIEMH

YOU MAKE IT BIG

SMART SOLUTIONS

2016ko


MAIATZAREN 30etik
EKAINAREN 4ra

Konponbide aurreratuak
eta negozio adimendunak
zure enpresarentzat

ADDIT3D by BIEMH

FABRIKAZIO
GEHIGARRIAREN ETA
3DREN NAZIOARTEKO
AZOKA

Laguntzaileak:



ERONKAMENEN SARAREN
ETA LERNAI-OSTEAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Antolatzaileak:



www.afm.es



www.biemh.com

EXPOSSIBLE!

Hondakinak biltzeko eta tratatzeko tasa %8 igoko da urteko bigarren seihilekoan

Aurreko astean Udaleko Osoko Bilkurak onartu zuen hondakin biltzetaren eta tratamenduaren tasa igotzea, EAJren eta PSEren aldeko botoekin eta EH Bilduk aurkako bozka eman zuen. 2016ko lehen seihilekoan hondakinaren tasa 3,2 haziko bada ere 2015eko tasarekiko, bigarren seihilekoan, berriz, %8 igoko da 2015eko tasarekiko.

Debabarreneko Mankomunitateak aurreikusitakoa baino 140.241 euro gehiago kobratuko dizkio Elgoibarko Udalari (%12,79 gehiago), Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioak jakinarazitako kostu berriaren ostean. Udalak iazko urrian, GHKren kostu berria ezagutu aurretik, onartu zituen 2016an indarrean sartuko ziren ordenantza fiskalak eta hasieran hondakinaren tasa %3,2 igotzea aurreikusi zuen.

Udalak erabaki du Mankomunitateari ordaindu beharreko kopuru gehigarria bere aurrekontuetatik bideratuko duela (102.000 euro) eta gainerakoa tasa bidez jasoko duela (38.000 euro).

Beraz, elgoibartarrek aurten 2015ean baino %8 gehiago ordainduko dute biga-



rren seihilekoan. Hau da, etxe bakoitzeko, batez beste, lehen seihilekoan baino 3,4 euro gehiago. Beti ere, kontuan hartuta bosgarren edukiontzia erabiltzen dutenen eta ez dutenen artean ezberdintasuna dagoela tasetan.

EAJren aburuz, Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioak aurreko legealditik zor handia du. Bittori Zabala zinegotziaren arabera, "egoera ona ez zela hasieratik jakin arren, inork ez zuen uste zorra hain handia izango zenik". Bere esanetan, "az-

piegitura kontratuak ezeztatzeak kostuak, eraikuntza enpresei ordaindu beharreko kalteordainak... kudeaketa kostu errealari gehitu behar zitzaizkion. Ondorioz, 40 milioi eurotik gorako zorra sortu da" azken lau urteotan".

EH Bilduren iritziz, "hondakinaren gaineko politika aldatu ezean tasa hori askoz gehiago igoko da". Hori dela eta, errauskailuaren kontrako kideekin hitzaldia antolatu du koalizioak maiatzaren 11rako (19:00etan Kultur Etxean).

Trafikoa itxiko dute N-634 errepidean, domeka eta astelehen gauean, Maalako errotonda berria asfaltatzeko



Maalako errotonda berriko lanak amaitzeaz daude. Domeka gauean, lurra fresatzeko zirkulazioa eten egingo dute N-634 errepidean, eta Elgoibarko herri barrutik bideratuko dute (22:00-06:00). Asfaltatze lanak astelehen gauean egingo dituztenez, trafikoa berriz ere etengo dute herri barrutik bideratzeko (22:00-06:00). Hirugarren gau batean ere zirkulazioa eten beharko dute pintura lanak egiteko, baina eguraldiaren arabera aukeratu dute hirugarren egun hori.

Martxan da enpresa industrialen ideia lehiaketaren hirugarren edizioa

TKgune Fabrikazioa Gazteentzako Enpresa Industrialen hirugarren Ideia Lehiaketa aurkeztu zuten astelehenan. Ekainaren 13an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea. TKgune Fabrikazioa Berrikuntza eta Teknologia Transferentziazko Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako Ikastetxeek, tartean IMHk, TKgune Gazteentzako Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketa antolatu dute, hirugarren urtez. Aurreko edizioetan moduan, 35 urtera arteko gazteek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

Aurten ere, izaera industrialeko sari bi aurreikusi dira lehiaketan. Alde batetik, Enpresa Industrial Onenaren sarituak 2.500 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu sustatzailearen beharren arabera, 100 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 300 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko (makinak...).

Beste alde batetik, beste sariak, Lanbide Heziketako ikasleak edo ikasle ohiak aurkeztutako enpresa industrial ideia onenari emango zaionak, 2.000 euro jasoko ditu eskudirutan, 40 prestakuntza ordu sus-




tatzailearen beharren arabera, 50 aholkularitza ordu enpresa proiektua garatzeko eta 100 ordu beharrezkoak diren baliabide industrialak erabiltzeko.

Lehiaketara aurkeztutako egitasmoetatik hiru onenak aukeratuko dituztela jakinarazi dute. Horiek epaimahaikideen aurrean aurkeztu eta defendatu beharko dituzte euren ideiak. Proposamenak aurkezteko epea ekainaren 13an amaituko da.

TKgune Fabrikazioa, Berrikuntza eta Teknologia Transferentziarako Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako Ikastetxeek antolatu dute TKgune Gazteentzako Enpresa Industrialen Ideia Lehiaketa, Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta Danobat Group Koop. E., Alcorta Forging Group S.A., Grupo Schaeffler, Grupo Unceta, Rural Kutxa eta beste zenbait erakundeen babesarekin.

Txakur jabeentzako eta txakurren bat eskuratu nahi dutenentzako doako ikastaroa antolatu du Anateusk elkarteak



Arg.: Virginia State Parks staff (CC-BY).

Anateusk elkarteak ikastaroa antolatu du maiatz honetarako bai txakur jabeentzako, bai txakurren bat erosi edo adoptatu nahi duten elgoibartar guztientzako. Maiatzaren 16an, 18an eta 25ean izango da ikastaroa Kultur Etxean. Aurrerago saio praktikoak ere izango direla iragarri du Anateuskek. Beste tokiren batean landuko da eta, nahi izanez gero norberaren txakurrarekin. "Azken atal praktiko honi jarraipena emango diogu taldean baita, urte osoan zehar Elgoibarren" adierazi du elkarteak.

Ikastaroa Anateusk Denok Elgoibarren Programan kokatuta dago. Bizikidetzan on eta arduratsua lortzeko programa da. Ikastaro honi buruzko informazio gehiago izateko 943 255 025 edo 688 805 656 telefono zenbakietara deitu behar da.

**“Gustatzen zaigu ‘asko maite zaitut’
entzutea, baina esatea kostatu”**

“Asko maite zaitut”, beste norbaiti esatea asko kostatzen zaizkigun hitzak, baina ETBko programa baten izena izanik hainbati esaten eta esanarazten dizkietenak, hain ezagunak ez diren pertsonak omenduz. Domeka gaueko saioan Gemma Agirregomezkorta elgoibartarra omenduko dute. Pixkanaka taula gainean zein telebistan aurpegi ezagun bihurtu den Zuhaitz Gurrutxagak aurkezten du saioa. Futbolak egin zuen ezagun eta musikan eman zituen zelaitik taula gainerako lehen pausoak. Gaur egun eszenatokiak eta pantailak dira bere erakusleiho. Sanmigeldarrak telebistan ikusten dugun aurpegi horren atzean gordetzen diren hainbat kontu esan dizkigu.

► ZUHAITZ GURRUTXAGA TELEBISTA AURKEZLEA

◆ **Futboletik musikara, gero antzerkira eta antzerkitik telebistara. Nolakoak izan dira batetik besterako pausoak?**

Futbola nire lana zenean musikan hasi nintzen. Eszenatokira lehen aldiz gitarra bat aurrean nuela igo nintzen eta nahiz eta gaitasun gutxien dudan esparrua izan gero etorri diren gauza guztien hasiera hura izan zen. Kantutik kantura istoriotxoak kontatzen nituen umore puntuarekin. Hori izan zen bakkarrizketarako pausoa eta handik telebista eta antzerkia etorri ziren. Gaur egun seguru asko ez nintzateke eszenatoki batera igoko kantura, baina garai hari asko zor diot lotsa kentzeko aukera eman zidalako.

◆ **Bietan ezagun izan arren futbolari zinen garaiaren eta oraingoaren artean ezberdintasun handia dago?**

Jende aurrean presioa bietan sentitu izan dut, baina ni hobeto moldatzen naiz orain futboleko presioarekin baino. Futbol zelaietan asko urduritzen nintzen, eta tentsioa handia zen. Telebistan eta antzerkian ere publikoarentzat ari naiz, baina beharbada arinagoa da.

◆ **Ausardia behar da horrela ibiltzeko, baina lotsatia zarela esan izan duzu.**

Herri txiki, infernu handi egiten hasi baino lehen kalean inori ordua galdeztzen edo jatetxe batean mahai bat noiz libratuko zain egoten lotsatu egiten nintzen. Gero eszenatoki gainean edo telebistan hori gainditu egiten dut.

◆ **Nola hasi zinen jende aurrean?**

Musikari zor diot taula gainera igozteko ausardia eman izana, baina *Futbolisto baten konfidentziak* bakkarrizketa izan da giltza beste guztiarentzat. Oso ondo funtzionatu zuen futbola delako gai nagusia eta errealismotik kontatua dagoelako. Orio ekoiztetetik deitu zidaten *Tu matxak* programa egiteko, ikusi zutelako eszenatoki gainean gauzak ondo defendatzen nituela. Horrela zabaldu zen telebistako atea eta gero antzerkirakoa.

◆ **Orain antzerkian eta aurkezle lanetan ari zara. Aktorea ala aurkezlea?**

Hiru eta Kreditua lanak egin ditut antzerkian eta azken hau esperientzia itzela izan da, bi lagun bakarrik ordu eta erdiz bata bestearen hitzak lotuz... Baina oraindik bide luzeagoa egin behar nuke nire buruari aktore deitzeko. Aurkezle banaiz, hiru urte dira saio batean eta bestean ari naizela telebistan.

“Eszenatoki batean sekula bizi izan dudan momenturik intentso eta politena izan da Elgoibarkoa”

◆ **Elgoibarren joan den astean egin zenuen *Kreditua* antzezlan. Nolakoak izan zen herrian bertan antzeztea?**

Eszenatoki batean sekula bizi izan dudan momenturik intentsoena eta politena izan zen dudarik gabe. Hiru egun kostatu zitzaidan lainotik jaistea. Nire herria izanik lagungarria den tentsioarekin etorri nintzen eta obraren idazle kataluniarra lehen aldiz obra hau ikustera Elgoibarrera etorri zen gainera. Joseba Apaolaza eta biok sekula izan gabeko energiarekin egon ginen. Gainera, publikoaren babesa ere itzela izan zen, barre eginez, obra txaloka etenaz eta hori orain artean ez zaigu gertatu. Zorionsu egin ninduen Elgoibarko jendeak lehengoan.

◆ **Asko maite zaitut saioan ari zara orain. Zer moduzko esperientzia da?**

Orio ekoiztetxeak egin ditu nik aurkeztu ditudan programak eta elkarrekiko konfiantza handia daukagu, fin eta errespetuz egiten dute lan eta asko zor diet.

Herri txiki, infernu handi saioak atsedean txiki bat behar zuenez *Asko maite zaitut* egitea eskaini zidaten. Zalantza handia izan nuen baietza ematerakoan, erronka berritzailea izanik, ez baita erraza. Euskal Herrian izenburu hori duen saio bat egite hutsak badu zailtasuna. Asko kostatzen zaigu hitz horiek erabiltzea eta jendea beldur zen zer egingo ote genuen. Ekoiztetxea fina izanik lortu dugu emozioak eta sentimenduak adieraztea, baina horiek jokoan aritu gabe. Ez dago gezurrik, ez dugu negar erraza bilatzen dramatismotik tiraka. Alde positibo erakutsiz jendea hunkitu nahi dugu. Jendearen errespetua lortu dugu eta hasieran ez nuen uste hala izango zenik.

◆ **Elkarrizketa batean esan zenuen: *gol bat sartzeak baino poz handiagoa ematen du barrea eragiteak*. Oraingo saioan, ordea, bati baino gehiagori malkoak atera dizkiozue.**

Omenaldia egiten dugunean malkoak ezin eutsi ibiltzen den lehena ni naiz, baina kontua da negar hori nondik bilatzen den. Dramatik negarra eragitea erraza da eta errazkeria horretan erortzeko arriskua zeukan saioak. Baina zorionez harro nago ez garelako horretan jausi. Saioan ingurukoengandik gauza asko egin duen jende anonimoa ateratzen ari gara, famatuenean adinako omenaldia merezi dutenak. Barre eragitea gol bat sartzearen parekoa da eta malko positibo hauek ere horiek beste dira.

◆ **Nola aukeratzen dituzue omenaldia jasoko dutenak?**

Kamera ezkutua egiten dugunez, lehenengoa emititu aurretik grabatu behar ziren batzuk, bestela susmopean egongo nintzateke. Ingurukoek baino ez zuten honen berri, beraz, ezin zigun inork deitu lagun edo senideren bat omendu nahi zuela esanez eta aurreko programetako artxiboetan aritu ginen bila besteak beste. Gainera, emozioak

hain agerian uzten ditugunez ez da erraza, denek ez baitute nahi beraien emozioak telebistaz jende guztiari erakusterik. Merezi duten istorio asko daude, baina dena lotzea ez da erraza. Ingurukoek ere esan behar digute omen-duk sorpresa ondo hartuko al duen.

◆ **Omendua konturatu gabe aritzea zaila izango da, ezta?**

Kamera ezkutua, kameradun betarekoak... erabili izan ditugu eta emititzen hasi garenetik saio berriak grabatzeko karakterizatu edo mozorrotu egin behar izan dut, aitzakia harrigarriak asmatu... Baina erronka polita da ezkutuan ibili beharra. Jendeak, ni gerturatu arren, lehenago pentsatuko du berak ez duela omenaldia jasotzeko motiborik berari egin behar diotela baino.

Aurkezle modura *Herri txiki, infernu handi* egitea zailagoa zen umorea jorratzea bera zaila delako, oso adi egon behar ginelako eta gero testuak idatzi... Oraingo saioan aurkezle lana ez da horren zaila, baina jendeak ikusiko balu atzean zenbateko lana dagoen ez luke sinetsiko. Bi ordu lehenago joan, kamerak ezkutuan jarri, omendua etxetik irten ez dadin kontrolatu, furgonetatik jarraitzea egin... detektibeak bagina bezala ibiltzen gara. Orain arte, harrizkoa badirudi ere dena ondo irten da eta ez gaitu inork harrapatu.

◆ **“Asko maite zaitut” esatea kostatu egiten zaigu?**

Saioaren alde komikoa hori da. Saiatzen gara galdetzen, omenaldia bultzatu dutenei, ea sekula esan dioten omenduari “asko maite zaitut” eta gehienek esaten digute hori badakiela omendua, besarkadak eman izan dizkiotela... Dena dela, programa beti biribiltzen dugu esaldi horrekin. Oinarria ez da hori, jolas bat da nahiz eta garrantzitsua beste guztia izan. Aitortu behar dut horrekin astero zirikatzen ibili arren nik neuk oso gutxitan erabili ditudala hitz horiek eta kostatzen zait erabiltzea. Ea programa egin ahala sarriago erabiltzea lortzen dudan. En-

tzutea asko gustatzen zaigu, baina esatea kostatu.

◆ **Antzerkian ere jarraitzen duzu?**

Gaur, ostirala, *Kreditua* obraren azken saioa egingo dugu pena handiz. Joseba Apaolazak eta biok taula gainean eta handik kanpo sekulako konexioa lortu dugu, lagunak gara. Gustatuko litzaidake aurrerantzean elkarrekin beste lanen bat egitea. Harekin sei hilabetean ikasi dudana ikas-teko eskolan ordu asko pasa beharko nituzke.

◆ **Proiekturik ba al duzu esku artean?**

Uste dugu *Herri txiki, infernu handi* itzuliko dela azken programan audientzia oraindik goian zegoelako. Egon garen tokietan herriarentzat gertakari garrantzitsua izan da. Ni sanmigeldarra naiz eta umetan, Euskal Herriko Itzulia handik pasatu, gaueko laburpena telebistan ikusi eta gure baserria agertzen zenean emozionatu egiten nintzen. Beraz, pentsatu nahi dut zer izango den

“Dramatik negarra eragitea erraza da, baina zorionez harro nago ez garelako horretan jausi”

norbere herriari telebistan ordu eta erdiko programa bat eskaini diotela ikusteak. Oraindik herri txiki asko daude eta ea bisitatzen ditugun.

DOMEKAN MISKIKO GEMMA AGIRREGOMEZKORTA

Herriz herri ari dira omenaldiak egiten eta domekan, maiatzaren 8an, 21:55ean, Gemma Agirregomezkorta elgoibartarraren txanda izango da ETB1en. Azken urteetan Miski elkartearen egindako lan guztia-
ren aitortza egin nahi izan diote bere lagun eta kide Blanca Salegik, familiaren eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin. “Erredaktoreek egiten dute jendea bilatzeko lana, baina Gemmarena nik proposatu nuen kasua, ezagutzen dudalako”, dio. Gaztetan distrofia muskularra diagnostikatu eta gurgildun aulkian ibili arren sekulako kemenak dauka. Perura egindako bidaiaren batean, Cuzcoko haur eta emakumeen egoera ikusita, gobernuaren kanpoko Miski erakundea sortu zuen. Ekintzaile moduan beste hainbat arlotan ere laguntzeko prest egon da beti. Omenaldian lagun eta senideen babesak, musika, dantza eta Perutik jasotako mezuak ikusteko aukera izango da.



Ezkontza gehigarria

INHAR
MUTIOZABAL
ENBARRAK

Espainiako ezkontza argazkilarien ohorezko aipamena - Konposizio Sailean



Joseba Jatetxea
josebajatetxea@hotmail.com

Aizkibel 10
20720 Azkoitia
(Gipuzkoa)
943 853 412

*Itxura aldaketa berriarekin,
ilusioz eta indarberrituta gatzoz
ospakizunetarako!*

Bai, filmetako ezkontza izan nahi dut

Lehen, filmetan ikusten genituen hainbat ezkontza pentsaezinak ziren gurean. Gaur egun, ordea, ezkontza ondo antolatzen lagunduko digute *wedding planner*-ek. "Bai, nahi dut" elizan edo udaletxean esan beharrean, gero eta jende gehiagok erabakitzen du bere ametsetako bazter miresgarri horretan ezkontzea, zeremonia maisu edo maistra eta guzti. Filmetan bezala, ezkontza bakoitza bakarra da orain.

Wedding planner batek ezkontzak modu profesionalean antolatzen ditu. Ezkontzako detaile guzti-guztiak planifikatu, koordinatu eta zuzendu ditzake. Merkatua inork baino hobeto ezagutzen duenez, berak du ezkontzaren arrakastaren giltza. Ezkongaiek denbora eta dirua aurrezten dute berari esker.

Wedding planner-ak ezkongaiekin elkarrizketa bat izaten du zeremoniaren inguruan haien gustuak eta lehentasunak aurrez ezagutzeko.

Ondoren, bezeroen aurrekontuaren arabera, proiektu bat landu eta aurkezten du. Gero ekarpenak egin ahal izango zaizkio proiektuari.

Wedding planner-ak abantailak besterik ez dakartza. Berari adierazitako aurrekontuarekin moldatuko da. Ezkongaiek ez dute arazoez arduratu behar izango, profesional batek guztia kudeatuko du eta. Zerbait gaizki badoa, bera arduratuko da. Bitartean, ezkongaiek ondo pasa dezatela.

Wedding planner-ek ezkontzak pertsonalizatzen lagunduko die ezkongaiei, baita amestutako leku zoragarri hori eztei-aldare bihurtzen ere.

ZEREMONIA MAISU-MAISTRAK

Gero eta bikote gehiagok aukeratzen dituzte leku bereziak zeremonia egiteko, eliza, epaitegi edo udaletxetik kanpo. Filmetan bezala, zeremonia maisu-maistren papera



**ileapaindegia
estetika**

943 747 4 21

San Bartolome, 33 behea - ELGOIBAR

noa

 Noa Estetika



Kala
LORADENDA

San Frantzisko, 24
Tel. 943 744 516



G & M

Ospakizunetarako jantziko zaitugu!

San Bartolome, 21- Elgoibar - Tel.: 943 033 476

Idama

- Ileanpaindegia ● Estetika ● Solarium-a
- Ileen azterketa mikroskopikoa
- Mikropigmentazioa

**Orain, laserra eta mediku
nutrizionista dauzkagu!**

Zatoz eta galdetu!

Antonio Arrilaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaleatik) - Tel.: 943 744 026

indarra hartzen ari da.

Zeremonia maisu-maistrek aurre-lan handia egin behar izaten dute, ezkontzeko momentua berezia eta bakarra izan dadin. Ezkongaien bizitza, nahiak eta desioak ondo aztertzen dituzte ekitaldia perfektua izan dadin. Zeremonia maisu edo maistra on batek lekukoak hunkitzea lortzen du, horrela.

Zerbitzu hori euskaraz aurkitu dezakegu dagoeneko. Astigarragako *Gipuzkoabodas.com* enpresak orain dela urte batzuk ekin zion zeremonia maisu-maistraren bidez eginiko euskarazko ezkontzak eskaintzeari.

CANDY BAR-A, OSPAKIZUNA GOZATZEKO

Candy bar-a lehen filmetan baino ez genuen ikusten, baina azken urteotan indar handiz sartu da Euskal Herriko ezkontzetara. *Candy bar*-a era guztietako gozokiz apaindutako



mahaia da: gominolak, gailetak, txokolateak, pastelak, *jamoiak*, piruletak...

Candy bar-en jatorria Estatu Batuetan dago, Pensilvanian. 50eko hamarkadan zabaldu zen, ezkongaei maitasuna adierazteko eztei egunean gozokiz betetako mahaia dekoratzen hasi zirenean bai lagunak bai senideak. Denborarekin *candy bar*-ak beste ospa-

kizun batzuetan ere erabiltzen hasi dira.

Ezteietako *candy bar*-a dekoratzeko, bi gauza izan behar ditugu garbi: alde batetik, mahaia jendearen arreta piztu behar du elementu ezberdinak erabiliz, eta altuera zein bolumen ezberdinekin jokatu; bestetik, gozokiek txikiak eta askotari-koak ez ezik, ederrak ere izan behar dute.

"Zure ezkontza egunean inoiz baino ederrago"

Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak

Errosario kalea 19 - 943 74 29 50 - cgestetika@gmail.com

- Manikura eta pedikura sesioak
- Aurpegi eta gorputzerako edertasun tratamenduak
- Alqvimia errituak ...

Jasone
Zerbitzu Grafikoa

San Ignazio, 1 - ELGOIBAR
Tel. 943 53 47 45
jasone@jasonesq.com
www.jasonesq.com

Sartu, aukeratu eta eramán itzazu!!

15424
PATXI & AMAMA
2015ko Apirilak 24
EGONBIA

Hezperategia

Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10 - 943 256 105

Mimoz landutako orrazkerak

Ezkontzara dotore, aurrez prestatzea hobe

Emaztegaiek eta gonbidatuek ahalik eta ederren eta itxura politenarekin egon nahi dute ezkontza egunean guztien aurrean eta oroitzapenerako argazkietan itxuroso agertzeko. Horretarako, jakina, denboraz hasi behar dute prestatzen –emaztegaiek batez ere– eta aproposa izan daiteke egutegi bat egitea; beti ere kontuan hartuz gorputzeko zein atali eman nahi zaion lehenetasuna.

ARGI ETA NATURAL

Gorputza zaindu eta edertzeko tratamenduak aldatu eta berritu egiten dituzte adituek, eta 2016an emaztegaientzako *look* argi eta naturalak ari dira gailentzen.

Azkenaldian emaztegaiei tratamenduetan azalari argitasuna ematea eta haren tonua bateratzea da joera nagusia. Baita azaleko orbanek edo granoek lagatako markak estaltzea eta itxura distiratsu eta naturala ematea.

Makillaje kontuetarako ere gehiegikerietatik aldentu eta ahalik eta soilena izaten ahalegintzen dira, kolore eta tonu suabeak erabiliz, arrosak, adibidez.



Cristina Garcia, estetika eta terapia naturalak.

Bauskain FINCA

Markina Xemein
944 249 059

bauskain@grupoiruna.net
www.fincabauskain.com

Ametselako lekura bidaiatzeko aukera, zugandik gertu.
Esklusibotasuna, pribatasuna eta gastronomia bikaina.
Etorri eta ezagutu!



IRVIA
GRUPO
grupoiruna.net





Orrazkerari dagokionez, askok ilea lotu gabe eta izur suabeekin eramatea aukeratzen dute ezkontzarako; ilea modu arruntean, baina tiara, lore edo hostoz apaindua, garai bateko itxura erromantikoa emanez.

NOIZ HASI BEHAR DA ZAIINTZEN?

Beharrezkoa da, gutxienez ezkontza baino hiru hilabete lehenago edertasun programa bati ekitea azala garbituz argitasuna emateko. Askotan ez da gogoratzen gorputzeko hainbat atal: eskotea, sorbaldak, eskuak baita ukalondoak ere. Horretarako badaude hainbat tratamendu: argi-pulstaketa eta esfoliazioa, esaterako.

Eskuek eta oinek ere mimoz egindako zaintza berezia behar dute eta manikura eta pedikura egiteko ezkontza aurreko eguna egokia izan daiteke.

Makillaje proba, berriz, garaiz egitea komeni da aldaketak behar badira nahikoa tarte izateko eta horiek egin ondoren orrazkera proba egiten da.

INHAR MUTIOZABAL
ARGAZKIAK
www.inharmutiozabal.com

ErlikoKale 4, Mutriku
T:943.604.961 / 629.711.572
info@inharmutiozabal.com

DONNA
ileapaindegia

Ileapaindegia
Aurpegiako tratamenduak
Manikura- Pedikura
Masajeak
Aurpegiko azal garbitaketa
Makillajea
Depilazioa (argiari bero eta epeli)
Depilazio elektrikoak
Gorputz tratamenduak
Dutxadun Solarium-a

943 744 388
Inbarrena, D. Elkar

YVES ROCHÉ Vera Wang VERO MODA
Sara
sara.jantziak
943 743 555
GIBLOND MUNICH havaianas

estetikaalire

Upaiz zaharra, 1 beheko - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar - alirestetico@hotmail.com - www.estetikaalire.com

Zatoz eta prestatuko zaitugu!

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bingar-xafiak ere sartzen dira, higiearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar bukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com



943 742 725
San Inazio, 4 behea
Elgoibar

Rosi
Ilcapaindegia



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 742 535
Elgoibar



AGURTZANE
c.b.

ilcapaindegia

Fotodepilazioa egiten dugu

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864



NAVA
IN PRIMATEGIA

Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail: nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Santa Ana, 44 - ☒ 208



G&M jantzidenda

Gorputza zaindu eztei-jantziak soinean ondo emateko. Soinekoaren diseinua eta kolorea egokiak izan behar dira ezkongaiaren gorpuzkera eta azalarekin bat egiteko, baina horrez gain, bitxiak ere hartu beharko ditu kontuan, belarri, lepo, eskumutur zein ilea apaintzeko erabiliko dituenak. Lore sortaren koloreak ere badu garrantzia gainontzeko tonuak aukeratzeko orduan.

GONBIDATU, JANTZIA ONDO AUKERATU

Soinekoa, gona ala prakak? Edozein aukera izan daiteke egokia baina aurten gona eta brusa janztea dago modan. Gona bai, baina nolako gona? Luze, labur zein erdikoak baina kanpai itxurakoak jantzteko joera dago.

Gona bere hutsean ez da ezer, ordea, brusa apainaz gain gerriko bat, belarritako deigarriak eta sekulako takoiak jantziz gero itxura dotorea izan dezake.

Nagusi den beste aukera bat monoa edo osoko jantzia da. Bai, gonbidatu asko prakak jantzen hasi dira eta badirudi ezkontzetako armairuan gelditzeko etorri den arropa dela.



Sara jantzidenda



AZALEA

Edergintza

M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da,
erretiroa dela eta.

autocares Revert



Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura

Avd. P. Muguruza, 29 - 5^a A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa

Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386

autocaresrevert@gmail.com

www.autocaresrevert.com



KANTABRIA

Jatetxea

EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

www.kantabriajatetxea.com
kantabria@kantabriajatetxea.com

RESTAURANTE KANTABRIA KANTABRIA JATETXEA

Arrate Gaina, 4 - 279 postakutxa - 20600 EIBAR
Tel.: 943 121 262

Imprenta Arrillaga

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkortza gonbidapenak
Hileta origarriak
Bisita txartelak
Kartelak - esketak
e.a.

Fotokopiak

Kokortzen
Txuri-beltzen



Trenbide Kalea, 13 - behea (Frente parking Estacion Tren)

Tel.: 943 74 01 87

e-posta: arrillagasl@outlook.com

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa


San Frantzisko 49 -1

Tel: 943 741 189

LEIGAR

ELEKTRAGAILUAK

MANU LEIZABE LOYOLA



TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

Salmenta eta zerbitzu teknikoa

Errosario, 8 · Tel. 943.74.00.54

Belaustegi Baserria



JATETXEA

Zure ezkontza,
zure neurrira!

www.belaustegi.com

San Migel Gaiña z/g
Tel.: 943 743 102



Euskara erabiltzeko espazioak erraztu nahi dizkie Atxutxiamaiak Elgoibarko familiei

Atxutxiamaiakaren Kiribilduz egitasmoak familiengan eragiten jarraituko du, euskara erabil dezaten. Hori dela eta, 2016ko udaberriko egitarauan, besteak beste, bi jarduera berri eskainiko ditu: alde batetik, Familia Eguna antolatu du maiatzaren 29rako, eta bestetik, Hondarribira familia irteera prestatzen ari da ekainaren bigarren astebururako.

Familia da euskararen transmisioa ziurtatzeko gune garrantzitsu bat. Horregatik, Atxutxiamaiakaren Kiribilduz egitasmoak familiengan eragiten jarraitu nahi du, eta gurasoei zein umeei euskara erabiltzeko espazioak eskaini nahi dizkie. Kiribilen ikuskizunetan, esate baterako, umeen zein gurasoen partaidetza sustatu nahi da. Horrez gain, biharko familia irteera antolatu du Ekogunera; han baratza ekologikoak bisitatzeko aukera izango dute. Maiatzaren 29rako, berriz, Familia Eguna antolatu du Idotorbera. Eta ekainaren 11 eta 12an asteburu pasa joango dira Hondarribiko aterpetxera.

Naiara Martin Atxutxiamaiak saileko arduradunaren esanetan, "familia guztiek ez dituzte aukera berberak euskaraz hitz egiteko. Errealitate eta ingurune ezberdinak dituzte". Hori dela eta, Atxutxiamaiak aisialdian aukera gutxiago duten familia horiei espazio berriak ireki nahi dizkie.

Familia Egunera edota asteburu pasara joango diren gurasoek ez dute zertan



Lehen familia eguna maiatzaren 29an egingo da San Pedron.

euskara jakin, baina bai euskararekiko jarriera proaktiboa izatea.

Familia Eguna

Maiatzaren 29an lehen Familia Eguna ospatuko da Idotorben. Nahi duten familiak oinez igoko dira eta nahi dutenak autoz. Goian, era guztietako jarduerak izango dira (jolasak, erromeria...). Familia bakoitzak bere bazkaria eta askaria eman beharko ditu. Askaria, baina, denek artean partekatzeko asmoa dago.

Atxutxiamaiakaz gain, ludoteka ere ari dira irteera antolatzen, eta gurasoak implikatu nahi dituzte hango zeregin batzuetan. Animatzen diren familiakideek, gainera, haien abildadeak erakusteko aukera izango dute (magia, txistek, ipuinak, musika...).

Familia irteera Hondarribira

Ekainaren 11 eta 12rako Hondarribiko aterpetxera irteera antolatu du Atxutxiamaiakaren Kiribilduz egitasmoak. Familia ezberdinen arteko bizikidetzeta eta euskararen erabilera sustatu nahi dituzte irteera honen bidez. Familientzako hainbat jarduera eskainiko dituzte: ibilbideak, aisialdiko ekintzak, herria ezagutzeta eta abar.

Familia Egunean eta Hondarribiko irteeran parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurretik Elgoibarko Izarrako bulegora joanda edo bestela www.elgoibarkoizarra.eus webgunean sartuta. Bi kasuetan maiatzaren 9an irekiko da izena emateko epea.

Kiribilduz Egitasmoa Elgoibarko Udalak diruz lagundutakoa da.



Txingudiko badiaz gozatzeko aukera izango da irteeran. Arg: Mikel Arrazola (CC-BY)

Europako lau musika eskolatako ikasleak etorriko dira Elgoibarrera Emusik jaialdian kontzertua eskaintzera


Musika Eskolen Europako Jaialdiaren hamabigarren edizioa hartuko du Donostia 2016k maiatzaren 4tik 7ra bitartean. Europako milaka musika ikasleek hartuko dute parte Emusik jaialdian, eta Elgoibarrera etorriko dira zapatuan bisitan: Tarragonako Santa Barbara herriko Germans Arasa; Alemaniako Bornheimgo eskola; Teruelgo Anton Garcia Abril; eta Suitzako Altdorfeko. Musikariei 10:15ean udaletxean egingo diete harrera eta ondoren Maalara joango dira, txistulari eta trikitilariekin kalejiran, han kontzertua eskaintzeko. 11:00etatik 13:30era bitartean izango da emanaldia. Kanpotik etorritako musikariak 125 izango dira bost taldetan banatuta, baina guztira 225etik gora musikari eta dantzarik hartuko dute parte Elgoibarko jaialdian. Izan ere, Inazio Bereziartuako ikasleak ere arituko dira talde batetik besterako tarteetan eta bukaerako kantuan. Askotariko piezak entzun ahal izango dira kontzertuan, klasikoak zein modernoak. Jaialdi bukaeran Emusikerako

apropos prestatutako *Musika Bizitza* kantua eskainiko dute Teruelgo Big Bandakoe eta azpian kantuan eta dantzan Inazio Bereziartuako ikasleek.

Lanaren erakusle

Elgoibarrera ikuskizun hori gerturatuko duten arren, Donostian izango da beste emanaldirik Emusiken aitzakian. Gaur, barixakua, Illunben, Euskal Herriko zein atzerriko musika ikasleen topaketa egingo dute eta amaiera ekitaldia bihar, 20:00etan, Saguesen izango da. Besteak beste ekitaldirako espresuki sortu dute Euskal Herri guztiko 30 ikaslerekin Big Band bat eta Gabonetan eta Aste Santuan bizikidetzeta eta entseguak egin ondoren kontzertua eskainiko dute ekitaldi horretan. Big Band horrekin joko du hain zuzen ere, Inazio Bereziartua musika eskolako Noemi Araujok saxofoia.

Antolatzaileen esanetan, Emusik jaialdia baino gehiago da. "Festa eta musika ospakizunaz gain, festibalak, musika eskolek maila guztietan egiten duten lan ne-



Noemi Araujok Emusikeko amaiera emanaldian joko du saxofoia Big Bandean.

kaezina jende aurrean zabaltzeko toki ere izan nahi du".

Kursaal Zentroaren eta Elgoibarko Udalaren lankidetzakultura-programazioa sustatzeko

Elgoibarko Udalak Kursaal zentroak eskaintzen duen programazioa sustatuko du, *Kursaal Eskura* proiektuarekin bat eginaz. Kursaalera kontzertu eta ikuskizunak jende gehiagorengana iristeko asmoz haietara joan nahi dutenez doako autobusa jarriko dute Udalaren lankidetzaren bidez.

Autobusez zuzenean Kursaalera joateko lehen aukera maiatzaren 31n izango da, Tolosako (Frantzia) Kapitolioko Orkestra Nazionalak eta Donostiako orfeoiaren kontzertua entzuteratzen. Sarrerak aurrez erosi behar dira www.sarrerak.kursaal.eus webgunean eta autobusez joateko tokia Elgoibarko Kultur Etxean (943 742 158 eta kultura@elgoibar.eus) erreserbatu behar da. Autobusak Debabarreneko herritarrak King-Kongeko garelkuan hartuko ditu 18:45ean. Kontzertuaren ostean, autobusak berriek ekarriko ditu entzuleak herrira.

Bertsolaritza ikasleen ikasturte amaierako jaialdia eguaztenean izango da Herriko Antzokian

Euskal Herriko Bertsolaritza Elkarteak abian jarritako *Gu ere bertsotan* proiektuaren baitan Elgoibarko ikastetxeetan bertsolaritza lantzeko jarduerak egiten dituzte ikasturtearen barruan Iñaki Gurrutxaga bertsolaria irakasle dutela. Besteak beste errimak edo doinuak ikasteko ariketak; eta bertsoak osatzen ere ikasi dute. Datorren astean, maiatzaren 11n, hain zuzen ere, LHko ikasleek bertsolaritzari buruz ikasi dutena jende aurrean azaltzeko aukera izango dute Herriko Antzokian. Herri Eskolako 4. mailako eta Ikastolako 6. mailako ikasleek 17:00etan egingo dute jaialdia eta. 19:00etan Herri Eskolako eta Ikastolako 5. mailako ikasleek. Askotariko gaiei buruz ikasleek prestatutako bertso sortak kantatuko dituzte jaialdian. Esaterako, Ikastolako 5. mailakoek eta Herri Eskolako 4. mailakoek ipuin ezagunak kantatuko dituzte bertsoz.

Zapatuan Neighbor eta Jon Gurrutxaga Sutegixan, eta datorren barixakuan Quaoar Kultur Etxeko sotoan

Maiatzaren 7an askotariko musika entzun ahal izango da Elgoibarren. Goizeko Emusik jaialdiaren ostean, gauean, Neighbor eta Jon Gurrutxagak kontzertua egingo dute Sutegixan. 22:00etan hasiko da, eta bost euro izango da sarrera.

Hernaniko Maite Larburuk eta Seatfleko Josh Cheathamek osatzen dute Neighbor. Herri kantagintza modernoan jarduteko sortuta tradizio klasikoetik salto egin eta kantu propioak sortuz lehen albuma kaleratu zuten 2013ko urrian. Euskara, ingelesa eta gaztelaniazko hamahiru kantu biltzen ditu *Ura patrikan* albumak. Taldearen zuzenekoek, harrera ona izan dute Euskal Herrian eta Elgoibarren ere hala izatea nahi lukete.

Jon Gurrutxaga elgoibartarra proiektu askorekin ibilitakoa da; zortzi disko ar-

gitaratua eta makina bat emanaldi eskainia. 2014an baina, *Hitz lauz* lehen barikarlan argitaratu zuen. Soinu akustiko eta elektrikoak jasotzen ditu rockean oinarrituta blues ukituren batzuekin. Kantuak gitarra akustikoarekin sortuak direnez, Gurrutxagaren alderdirik intimistena entzun ahal izango da kontzertuan.

Quaoar sotoan

Bestalde, datorren barixakuan, maiatzaren 13an, Sinusek antolatu ohi dituen Sotoko Hotsak kontzertuen baitan Quaoar taldearen emanaldia izango da 23:00etan Kultur Etxeko Sotoan. Sarrera bertan hiru euro ordaindu beharko dira.

Bilboko boskote honek rocka egiten du inolako mugarik gabe eta beraien instrumentuekin sormena landuz. Hiru disko grabatu eta hainbat sari jasotakoak dira.



Quaoar talde bilbotarra.

Galiziarrek aste honetan urteroko jaia hasi eta datorren astean gainontzeko herritarrengana zabalduko dute



Banda de Gaitas de Piloño taldea Elgoibarren.

Galiziar jatorriko jende asko bizi da Elgoibarren eta beraien herria gogoratu eta gerturatu asmoz Casa Galizak Semana Das Letras Galegas jaia antolatu du. Zapatuan, maiatzaren 7an Casa Galizako bazkide eta senideek bazkaria izango dute elkartean eta *tirada de chaves* jokoa gero.

Baina gainontzeko elgoibartarrei ere gerturatu nahi dizkiete hango produktuak eta musika, beraz, maiatzaren 13an

hasita Aita Agirre plazara ekarriko dute jaia asteburu guztirako. Barixakuan, 19:30ean, egingo dute inaugurazioa Manuel Maria idazlearen omenez. Ondoren Galiziako muskuilak dastatzeko aukera egongo da eta musika giroa Abanico orkestrak jarriko du, baita zapatu iluntzean eta gauean ere.

Euskal dantzak eta Galiziako gaitak

Zapatuan, 11:00etan hasiko dute eguna, Galiziako produktuen dastaketarekin. 12:00etan Galiziako Banda de Gaitas de Piloño taldeak kalejira egingo du jai gunean eta arratsaldean hauekin batera dantza erakustaldia eskainiko du Haritz Euskal Dantzari Taldeak Kalegoen plazan, 18:30ean. Iluntzean Galiziako produktuak dastatzeko eta dantzarako aukerarik ere ez da faltako.

Domekan bukatuko da jaia. Galiziako produktuak dastatzeko aukera emateaz gain, 11:30ean meza egingo dute Bartolome deunaren parrokiaren hildako galiziarren omenez eta ondoren bazkaria ofiziala Casa Galizan.

Antxitxikari elgoibartarrak nagusi Buetraitzeko kilometro bertikalean



Arg.: Fotorunners Foto

Buetraitzeko II. Kilometro Bertikala jokatu zen apirilaren 29an, Arantzazun. Guztira 79 lehiakide elkartu ziren 2,7 kilometroko luzeera eta 730 bat metroko gora-behera positiboa zuen probara. Hiru elgoibartarrek hartu zuten parte gabeuz jokatu zen proban, eta emaitza ezin hobekak lortu zituzten hirurek. Iban Murua gailendu zen, 25 minutu eta 9 segundoko denborarekin. Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez izan zen azkarrena, 35:25eko denborarekin. Biek ondu zituzten probako errekorrak. Iñigo Larizek (26:35), berriz, bigarren egin zuen gizonzkoetan.

Viento Sur taldeak mailaz igotzeko kanporaketa jokatu du



Elgoibarko Viento Sur saskibaloitza taldeak bosgarren postuan amaitu du Liga Txapelketa, eta postu horri esker, Lehen Probintzial Mailarako igoera fasea jokatzeko sailkatu da. Bigarren postuan sailkatu den Irungo Don Jabugo Ensanche Erroibide taldearen aurka jokatu du igoerako kanporaketa. Joaneko partida zapatu honetan, hilaren 7an, jokatu dute Olaizaga kiroldegian, 16:00etan hasita. Zaleei babesa emateko deia egin die taldeak. Itzulerako partida maiatzaren 14an jokatu dute Irunen.



Arg.: Sanlo

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Gabazek

Euskal Ligako 2. Nazional Mailako Igoera fasea jokatzeko ari da Gabaz, Sanloko senior gizonzkoen bigarren taldea, eta jokatu dako bi partidak irabazi ditu orain arte. Azken jardunaldian Pasaiaiko Donibane taldeari 24-18 irabazi zion Olaizaga kiroldegian jokatu dako partidari. Sei talde ari dira igoera fasean jokatzeko, eta lau onenek jokatu ditezko igoerarako kanporaketak.

1. Nazional Mailan jokatzeko duen Sanloko senior gizonzkoen lehen taldeak, Alcorta Forging Groupek, berriz, Romo taldea hartuko du Olaizagan, ligako azken partidari. Zapatuan, maiatzaren 7an, izango da Olaizaga kiroldegian, 19:00etan hasita.

Realak antolatutako torneoa Mintxetan

Realak 2005ean jaiotako umeentzako txapelketa antolatu du eta Mintxetan jokatu da domekan, hilaren 8an. Zortzi taldek hartuko dute parte, tartean Elgoibarko bi taldek. Bi multzotan banatuta elkarren aurka jokatu dute lehenik. A multzoan honako talde hauek jokatu dute: Elgoibar B, Arrasate B, Arrasate D, Danena A eta Lengokoak A. B multzoan, berriz, Lengokoak B, Elgoibar A, Danena B, Corass eta Arrasate A. Partidak 10:00etan hasiko dira, finalerdiak 12:35ean eta finala 13:40an izango da.

Iban Fernandezek egingo duen elkartasun erronkarako kilometroak salgai daude



Iban 2-dean izeneko erronka solidarioa egingo du Iban Fernandez elgoibartarrak maiztaren 27an. Elgoibarri mendiz mendi lau itzuli jarraian eman nahi dizkio 27 orduan. Errefuxiatuei laguntzen diharduen 2-dean B-rotuz taldearekin elkarlanean arituko da Fernandez (eskumatik, bigarrena). Kilometro solidarioak jarri dituzte salgai 25 euroan eta baita Metro solidarioak ere, euro batean. Kilometroak erosteko hainbat modu izango dira. Batetik, 2-dean B-rotuz taldeko kideek eguaztenetan eta eguenetan King-Kong-en jarriko duten postuan, 17:30etik 19:30era. Bestetik, 2-dean B-rotuz taldeak Facebook sare sozialean jarrita edukiko duen formularioa betez ere eros daitezke kilometroak.

Pilota Eguna egingo dute gaur Mendaroko Goñati pilotalekuan



Mendaroko Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Pilota Eguna egingo dute gaur Mendaron. Goñati pilotalekuan jokatuko dituzte partidak, 17:00etatik aurrera. Pilotarekiko zaletasuna sustatzeko antolatu zuten iaz estreinako Pilota Eguna, eta LH1etik LH6ra arteko 78 neska-mutilek hartu zuten parte. Pilota eskola ere iaz sortu zuten Mendaron, MTE txirrindulari elkartearen babesean.

Emaitzak

FUTBOLA

Anaitasuna 2 – Haundi 0 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 0 – Gure Txokoa 1 (1. erreg.)
 Elgoibar 2 – Arrasate 0 (Jub.)
 Arrasate 1 – Elgoibar 2 (A kadeteak)
 Elgoibar 2 – Bergara 1 (B kadeteak)
 Elgoibar 3 – Real Union 3 (Oho. inf.)
 Elgoibar 0 – Idiazabal 0 (Inf. txiki)
 Tolosa 5 – Elgoibar 0 (Aleb. errendimendua)

SASKIBALOIA

Zarautz Sharks 63 – Viento Sur Elg. 65

ESKUBALOIA

Lauko Elg. 31 – Egia 14 (Senior emak.)
 Egia 31 – Alcorta Forging Group 35 (Sen. giz.)
 Gabaz Elg. 24 – Donibane 18 (Sen. giz.)
 Beristain 24 – Eibar 30 (Jub. mut.)
 Ordizi 8 – Dario Bus Elg. 15 (Inf. nesk.)
 Pulpo 22 – Cometel. 20 (Inf. nesk.)
 F. Ikus 18 – Urola 11 (Inf. nesk.)
 Eibar 26 – H.Txarriduna 25 (Inf. mut.)
 Bidaso A 29 – Murgil 28 (Inf. mut.)

Agenda

SASKIBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 7
 16:00 Viento Sur – Don Jabugo Ensanche Erroibide

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7
 12:00 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. kad.)
 17:00 Haundi – Ostadar (Oho. erreg.)
 Domeka, 8
 10:00 2005ean jaiotakoan Txapelketa

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 7
 10:00 H. Txarriduna – Zalla Erretegia Pulpo (Inf. nesk.)
 11:15 Cometel – Orioko (Inf. nesk.)
 12:30 Dario Bus – Urnieta Altuna (Inf. nesk.)
 17:30 Pneumax – Pulpo (Kad. nesk.)
 19:00 Alcorta Forging Group – Romo (Sen. giz.)
 Domeka, 8
 10:00 Murgil – Canterias Dominguez Pulpo (Jlnf. mut.)
 11:30 Tecnifuelle. – Egia (Jub. mut.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 8
 10:00 Sukia neskak – Pulpo (Aleb. nesk.)
 11:00 Sukia mutilak – Pulpo (Aleb. mut.)

LANA..... Eskaerak

Adinekoak zaintzen, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan zein erakuntzako peoi lan egingo nuke. 632 459 224

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egiteko prest. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 632 871 550

Orduka lan egiteko prest. Euskalduna naiz. 637 102 725 / 943 744 033

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 632 229 972

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 634 709 827 / 943 743 347

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egiteko prest. 632 408 771

Lan bila. Erreferentzia onak eta eskarmentua nagusiak zaintzen. Interna edo orduka. Paperak indarrean. 622 153 750

Lan bila. Interna lan egin dezaket edo goizetan orduka; astebukaeretan ere. Esperientzia eta erreferentziak. 633 808 931

Edozein lan hartuko nuke. Interna ala orduka. 612 545 143

Garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest orduka. 632 654 679

Lan bila. Lorezaintzan, megafonian eta hoteleko arropa garbiketa, lisaketa eta tolestean esperientzia. 631 590 791

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia dauzkat. 678 112 785

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Erreferentziak dauzkat. 634 627 696

Sukalde laguntzaile, edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 631 562 380

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoan zehar. 616 608 781

Adinekoak zaintzen eta etxeko, elkarte-
etako eta atarrietako garbiketan lan egiteko prest. 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Aukeran, gaez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. 631 974 374

Ume edo nagusiak zaintzeko prest gaez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 632 573 554

Lan bila. Garbiketan, adinekoak eta umeak zaintzen... 631 418 130

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein interna. 628 738 472

Lan bila. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen... 602 573 072

Lanerako prest: Adinekoak zaintzen, portalak eta tabernak garbitzen... Orduka. 631 790 555

Buzoietakoa banaketa zein obra laguntzaile lanak egiteko prest. 602 865 324

Adinekoak zaintzeko zein sukalde laguntzaile aritzeko prest. Orduka edo interna. 631 153 274

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, baita ospitalean zaintza lanak egin ere. Esperientzia eta diploma dauzkat. 671 989 434

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Arduratsua, esperientziaduna eta baimenak indarrean. Erreferentzia onak. 631 681 516

Adinekoak zaintzeko prest orduka zein etxean bertan bizi izaten. Arduratsua naiz. 612 278 600

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Esperientzia eta erreferentzia onak. 631 925 362

Umeen zaintza, garbiketa eta sukalde laguntzaile lanak egingo nituzke arratsalde. 654 304 337

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mintxetako igerilekuko tabernarako. Ekainetik irailera bitartean. Bidali curriculuma helbide honetara: kamareroa@gmail.com

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali kurrikuluma taberlan@gmail.com helbidera.

Epe motzean, Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabilza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu 943 254 252 edo 645 599 810 zenbakietara.

ETXEBIZITZAK..... Alokairua

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo bikoa. 602 490 595

GARAJEAK..... Salgai

Garajeak salgai herriko erdigunean. 648 077 832

KINTADAK.....

1961ean jaiotako kintada maiatzaren 14an. 12:30 etan Kalegoen Plazan. Luntxa Tantakan. Bazkaria Sigman. 60 euro. Izen-ematea maiatzaren 10a baino lehen. Laboral kutxa: 3035 0007 28 0071131982.

BESTELAKOAK.....

1966an jaiotako eta Pedro Muguruza ikastetxean ikasi genuen. Argazki baten bila gabilza: eskola sasoiaren gure kurtsoa ikasleei ateratakoa. Argazki hori baldin baduzu, deitu. 650 776 861 (Rosa)



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Orain dela urte dezente, nire Garaje Komunitateko jabeen batzar batean, garajeko atea aldatzea adostu genuen. Ate horrek, funtzionamendu sistema zela-eta, garaje bati kalte egiten zion, beraz, erabaki genuen toki horren jabeak Komunitateari ez ordaintzea atea aldatzeko gastuetan zegoion zatia.

Jabeen batzar batean, garajeko atea berriz aldatzea erabaki da orain, baina funtzionamendu sistema ezberdina du eta ez dio garajeko toki horri eragiten. Beraz, jakin nahi nuke jabe horrek ordaindu behar al diuen ate berriaren instalazio eta mantenu gastuetan berari dagokiona.

Berez, ez dago arrazoirik jabe horrek, gainontzeko jabeen erara, ate berriaren instalazio eta mantenu gastuetan ez parte hartzeko. Legearen arabera, jabe guztiak daude behartuta edozein obra edo instalazio onartze-
ra, eragindako kalte-galeren truke ordaina jasoz. Obligazio hori garaje jabeentzako ere bada. Beraz, onartu behar dute higiezin-zerbitzuak eskatutako konponketak egitea eta obrak, lanak edo zerbitzu komunak egiteko ezinbesteko zorra. Ordaintzekotan komunitateak ordaindu beharko dizkio eragindako kalte eta galerak.

AHOLKUA: Kalte eta galerak ordaintzetik salbuetsi zuen komunitateak kaltetutako jabea. Baina salbuespen hori jadanik ez dago, beraz, gainontzeko jabeek bezala ordaindu beharko du ate berria eta honen mantenua.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Luken**, gaur urteak bete dituzulako! Muxu haundi bat Elgoibarko familiaren partez.



Zorionak, **Saioa!** 8 urteko neska haundia daukagu. Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Ane**, bihar 2 urte beteko dituzulako. Patxo haundi bat etxekoen partez.



Zorionak, **June**, zure bigarren urtebetetzean. Gurasoen eta aitona-amonen partez.




Zorionak, **Eilene**, zure urtebetetzean. Amona, guraso, ahizpa eta osaba-izebak. Maite zaitugu. Egun zoragarria igaro.



Zorionak, **Oier**. 5.000 muxu.




Zorionak, **Sare eta Beñat**, zuen zazpigarren eta hamaikagarren urtebetetzean. Patxo haundi bana etxekoen partez.



Zorionak, **Jon**, maiatzaren 3an 5 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Julen eta Paula**, zuen urtebetzea dela-eta. Martinen partez.



Zorionak, **bikote!** Ondo pasa zuen urtebetetzean, muxu potolo bana etxekoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com

ESKAITZA BEREZIA
eguzkitako betaurreko graduatuak

68€ tik hasita

PROGRESIBOAK

199€ tik hasita

RPS 182/12



IV. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

2012ko maiatzaren 11n hil zen.

Enarak bueltatu dituk eta hire izena ekarri juek mokoetan

Koadrilako lagunak



6 BARIXAKUA

17:00 Pilota Eguna. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

17:30 Kiribilen ikuskizuna. Maalan.

18:30 Erakusketa: Egur arte tailerra. Astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Zine-foruma: *Una canción para Marion*. Kultur Etxean.

21:30 Zinegiro goritan: *Amores perros*. Sutegixa gaztetxean.

7 ZAPATUA


11:00 Ibai eta erreka garbiketa. Mendaron.

11:00 Kontzertua: Emusik. Maalan.

14:30 Galiziako letren astea: Casa Cultural Galizako bazkide eta senideen bazkaria. Elkartean.

22:00 Kontzertua: Neighbor eta Jon Gurruzgaga. Sarrera: 5 euro. Sutegixan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Carol'

6 Barixakua, 21:30

7 Zapatua, 19:00 eta 22:15
(Jatorrizkoa azpitituluekin)

8 Domeka, 19:00

9 Astelehena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	09:00 - 22:00	22:00 - 00:00
	6 Barixakua FERNANDEZ	Astelehenetik domekara
	7 Zapatua YUDEGO	ETXEBERRIA (Elgoibar)
	8 Domeka YUDEGO	Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140
	9 Astelehena ORUESAGASTI	00:00 - 09:00
	10 Martitzena BARRENEXEA	IRAUNDEGI (Eibar)
	11 Eguaztena IBAÑEZ	Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110
	12 Eguena GARITAONANDIA	
	13 Barixakua ETXEBERRIA	

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel.: 943 751 384

11 EGUAZTENA

17:30 Bertsogintza egitasmoaren ikasturte amaierako jaialdia. Herri Eskolako 4. mailako eta Ikastolako 6. mailako ikasleak. 19:00etan Herri Eskolako eta Ikastolako 5. mailako ikasleak. Herriko Antzokian.

19:00 Hitzaldia: Zubietan eraiki asmo duten errauskailua. Hizlariak: Errauskailuaren aurkako mugimenduko kideak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan

13 BARIXAKUA

17:30 Kiribilen ikuskizuna. Maalan

18:00-20:30 Odolematea. Anbulatorioan.

19:30 Galiziako letren jaiaren inaugurazioa. Muskuilu dastaketa doan. 23:00etan dantzaldia Abanico orkestrarekin. Aita Agirre plazan.

23:00 Kontzertua: Quaoar. Sinuose. Sarrera: 3 euro. Kultur Etxeko sotoan.

ZEINTZUK DIRA MAILEGU BAT ESKATZERAKOAN BEGIRATU BEHARREKO PUNTU GARRANTZITSUENAK?

1. Baldintza finantziarioak. Hau da, irekiera komisioa, interes tasa eta komisioa dirua aurreratzeagatik zein mailegua kentzeagatik.

2. Baldintza horietara heltzeko lotura maila. Hau da, nomina eraman behar ote dugun, aseguruak banketxearekin egin behar ote ditugun, BGAE-EPV bat edo txartelak kontratatu behar ote ditugun.

3. Etxebizitzaren kasuan, erosketa prezioaren gainean ehuneko zenbateko mailegua ematen dituten (%90 adibidez).

Garrantzitsua da lortuko diren baldintzen eta loturaren arteko oreka. Prezio ona lotura askoren truke lortzen bada, mailegu hori ez da hain interesgarria izango. Horrez gain, prozesuan zehar jasotzen den aholku maila eta banketxearen gertutasuna kontuan hartzekoak dira, epe luzeko erlazio bat hasten baita.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoko honetara: galderak@bankoia.es

 Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR




IV. URTEURRENA
Itziar Loiola Arrillaga

*Gure ondotik joan zinela
lau urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre ta alaitasunaz
gogoan bizi gera gu.
Zeruko izarririk argitsuena
Itziar, maite zaitugu.*

Familiakoak

2012ko maiatzaren 7an hil zen. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



IV. URTEURRENA
Itziar Loiola Arrillaga

*Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza burruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
koadrilako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.*

Koadrilako lagunak

2012ko maiatzaren 7an hil zen.



IV. URTEURRENA
Angel Mari Arregi Cano

*Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Familiakoak

2012ko maiatzaren 11n hil zen.





Julen Ansola



Julen Ansola



Eider Iriondo

Zuhaitz honen adarretako bat gara,
familia da adarra,
eta neu adarretik sortutako lorea.
Lorea haunditzean,
iristen da garai bat non erabakiak hartzen hasten garen,
etengabe erabakiak hartzera behartuko gaitu bizitzak,
eta horrela, erabakien joan etorri bihurtuko da bizitza.
Arantzak eta erabakiak,
txikiak eta haundiak.
Eta iristen ez den bihozkada baten zain egoten gara egunak eta gauak.
Ezker edo eskuineko ideia eta ikuspuntuak jarraituz
zuhaitzaren bueltan eseriko gara
batzuek ezkerrean
besteak eskuinean
suge pozoitsuek esandakoari aurre egiten saiatuko dira batzuk,

besteek itsututa jarraituko dute logikarik gabeko ideiekin.
eta zoritxarrez beste askok ez dute erabakitze aukera izango ere.
Iraganean egindakoen oraina dugu begi aurrean,
eta gaur egiten duguna izango da etorkizunaren zatitxo bat.
Bizitzan, dena emateak ez duelako esan nahi bueltan berdina jasoko duzunik.
Bizitzan gauzak, gertatu behar direlako gertatzen dira.
Uneoro ikasten ...iraganetik ...orainetik ...zuengandik eta zorte haundiko
lorea naiz ni,
erabakiak hartzera kondenatuta eta aldi berean libre,
ni neu, nire erabakien jabe.
Ziur naiz zerbait galduko dudala baita beste zerbait irabazi ere.
Erabakietatik ihes egiteak ez duelako balio,
erabakiak hartzeko ausardiarik ez duena, hutsa delako.
Ilusioaren bidetik jarraituko dut, itxaropena galdu gabe
biharko uda eta neguak ezagutu nahi ditut eta neu izan.

“Erabakiak hartzera kondenatuta eta aldi berean libre”

Tratamendu guztiak bukatzearen bermea! Aurrekontuak letra txikirik gabe.

■ Hertz inplantea noiz jartzea gomendatzen da?

Hertz pieza edo piezak ezin direnean dena delakoagatik konpondu, eta ateratzea beste erremediorik ez dagoenean.

■ Zer da hertz inplante bat?


Galdutako hortzaren sustraien ordekoa da. Titaniozko piezak dira, pazientearen hezurarekin biobateragarriak.

■ Nola jartzen da?

Entzian ebaki txiki bat egin ondoren, hezurrean jartzen da.

■ Galdutako hertz bakoitzeko inplante bana jartzea komeni da?

Ez beti. Jarraian dauden piezak ordekatzeko edo arku guztia ordekatzeko, inplante kopuru txikiagoa



jarrita posible da galdutako pieza guztiak birgaitzea.

■ Inplante guztiak berdinak dira?

Inplante marka, diseinu eta modelo ezberdinak daude. Aldaz Hertz Klinikaren inplante mota ezberdinak era-

biliz lan egiten dugu, kasu kliniko bakoitzera egokituta eta paziente bakoitzaren posibilitateak kontuan hartuta.

■ Zenbat denbora itxaron behar dut tratamendua amaitu arte?

Osteointegrazioak lau eta sei hilabete bitarteko iraupena du, kasu bakoitzaren arabera. Denbora horri protesia prestatzeko hitzorduak gehitu behar zaizkio.

■ Beste pertsona batek egindako tratamendu bera egin dezaket?

Kasu kliniko bakoitza modu indibidualean aztertzen da. Baldintzak aldatuak dira paziente batetik bestera. Beharrezkoa da paziente bakoitzaren balorazioa egitea, bere kasura egokitutako tratamendurik egokiena eskaintzeko.





MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA



250 LAGUNEN DAKO JANGELA



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29
www.restaurantelasa.es



ERA GUZTIETAKO
BANKETEAK OSPATZEKO
toki bikaina